

Martxoan erositako 10 dendan beste irekiera bat

EROSKI-K SUPERMERKATU BAT IREKI DU GALDAKAON

- Saltoki berrituak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du
- EROSKI-k 8 milioi euro inbertitu ditu martxoan erositako hamar dendak berritzen eta eraldatzen
- Aurtengo azken irekiera izango da. 2021eko lehen hiruhilekoan, berriz, Bizkaian erositako beste bi denda inauguratuko ditu

Galdakao (Bizkaia), 2020ko abenduaren 17a.- [EROSKI](#)-k supermerkatu bat ireki du Zubiaurretarren kaleko 16. zenbakian, Galdakaon. Martxoan erositako hamar dendetatik irekitzen duen zortzigarrena da. Orain arte, azken asteetan, lau denda inauguratu dituzte Bilbon —Henao eta Autonomia kaleetan eta Errekaldeko eta Deustuko auzoetan—, bat Itzubaltzetan (Getxon), beste bat Erandion eta azkena, joan den astean, Basaurin. Hauxe da urteko azken irekiera, eta gainerako biak 2021eko lehen hiruhilekoan irekiko dituzte.

Hala, EROSKI bere presentzia handitzen ari da Bilboko auzo guztietan, eta bere eskaintza osatuko du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon. Era horretan, 90 supermerkatu izango ditu guztira Bilbo Handian.

Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 600 metro koadroko salmenta aretoa du. 11 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriarik behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 840.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Produktu freskoen eta tokian tokiko alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat Covid-19aren garaiotan", esan du EROSKI-k iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Lehen seihilekoan %14,5 igo da EROSKI-k Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. Eskualdeko 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneean. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegri-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKI da liderra EAEn elikagaien banaketan. 411 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta *online* supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)